

GENEROAK 2017ko EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
AURREKONTU OROKORRETAN DUEN ERAGINARI
BURUZKO TXOSTENA

Ogasun eta Ekonomia Saila

2017ko otsailaren 20a

AURKIBIDEA

1. Araudi-esparrua.....	5
2. Kontzeptu-esparrua: mainstreaming edo genero-ikuspegia.....	6
3. Genero-ikuspegia duten aurrekontuak Euskal Autonomia Erkidegoan.....	7
1. Helburua.....	7
2. Tresna: P17-Gen formularioa.....	7
4. Diagnostiko sozioekonomikoa.....	9
1. Osasuna.....	9
2. Denbora.....	17
3. Ezagutza.....	20
4. Enplegua.....	22
5. Dirua.....	29
6. Emakumeen aurkako indarkeria.....	31
7. Boterea.....	35
5. Diru-sarreraren azterketa.....	37
6. Gastuen azterketa.....	38
1. EAEko Administrazio Orokorreko langileak.....	38
2. Aztertutako aurrekontuak.....	42
3. Genero-egokitasuna.....	50
4. Genero-garrantzia.....	55
5. Nabarmendu beharreko ekintzak.....	60
6. Nabarmendu beharreko hobetzeko ekintzak.....	68
7. EAEko Aurrekontu Orokorrak aztertzeko prozesuaren ebaluazioa	76

1. Araudi-esparrua

“Generoaren eraginaren aurretiko ebaluazio-txostena” barne hartzen duen lege-aurreproiektuaren xedea da 2017rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren proposamen bat aurkeztea. Kontuan hartu da aurrekontuen hartzaileak, azken finean, lurralde horretan bizi diren biztanleak direla, araudi-proiektuak baliabideak eskuratzeko edo kontrolatzeko ahalmenari eragiten diola eta emakume zein gizonen bizi-baldintzei zein gizartean duten tokiari eragiten diela, hori hobetuz edo okertuz; ondorioz, erabaki da beharrezkoa dela araudi-proiektuaren genero-analisia egitea.

Txosten honen xedea da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen (otsailaren 18ko 4/2005 Legea) 19. artikulua dioena betetzea. Hau esaten da bertan:

“Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeke eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean”.

Hala, Gobernu Kontseiluak, 2016ko abenduaren 20an egindako bileran, 2017. urterako Euskal Autonomia Erkidegorako Aurrekontu Orokorrak gauzatzeko Zuzentzari Ekonomikoak eta Arau Teknikoak onetsi zituenean, “Aurrekontu-programak genero-ikuspegitik aztertzeko formularioa (P17-Gen)” betetzeko betebeharra ezarri zuen; Kontseiluaren esanetan, hori lanerako funtsezko tresna zen berdintasunean oinarrituriko gizarte bat lortzeko.

Aipatutako zuzentzarauetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko konpromisoa ere aipatzen da; hain zuzen ere, 3.2.9 atalean emakumeen eta gizonen berdintasunaren estrategia ageri da Gobernuaren ekintza globalaren zeharkako politika estrategiko gisa.

Bestalde, Gobernu Kontseiluak 2013ko abenduaren 30ean onetsi zuen eta gaur egun indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko beharra aipatzen du gobernantza hobetzeko neurrien artean (G9).

2. Kontzeptu-esparrua: mainstreaming edo genero-ikuspegia

Nazio Batuek 1995ean Pekinen egin zuten Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzian lehenengoz definitu zen "genero-mainstreaming" izenekoa, "zeharkakotasun" edo "genero-ikuspegi" gisa ere izendatua. Kontzeptu hori funtsezko ikuspegi bilakatu zen Nazio Batuetako herrialdeen politika publikoetan eta programetan.

Aurrerago, lanerako ikuspegi hori Europako esparru juridikoan txertatu zen, 1999an, Amsterdameko Ituna indarrean sartu zenean (2. eta 3. artikulua). Genero-mainstreaminga Nizan 2001ean sinatu zen Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean ere ageri da.

Euskadin, gure funtsezko erreferentzia-esparrua Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea da (otsailaren 18ko 4/2005 Legea). Lege horren 3. artikuluan, printzipio orokorretan, berariaz aipatzen da genero-ikuspegiaren integrazioa euskal agente publikoen politika eta jarduketa guztietan. Genero-ikuspegia integratzeak honako hau esan nahi du:

"emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea".

Nazio Batuek 2000. urtean New Yorken, Nazio Batuen egoitzan, egin zuten Emakumeei buruzko Mundu Konferentzian, Beijing +5 izenekoan, hau eskatu zitzaien estatu kideei Ebazpen Orokorraren bidez: genero-ikuspegia txerta zezatela aurrekontu publikoetan, gobernuaren maila guztietan, EBren aurrekontuetan barne.

3. Genero-ikuspegia duten aurrekontuak Euskal Autonomia Erkidegoan

3.1. Helburua

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak genero-ikuspegitik aztertzearen azken xedea da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko konpromiso politikoarekin koherenteagoa den politika publikoak egitea. Horrek esan nahi du beharrezkoa dela:

- ✓ Aurrekontuen esleipenek emakume zein gizonen aukera sozioekonomikoetan duten eragina aztertzea euskal administrazio publikoaren jarduketa-arlo guztietan eta planifikazio-, exekuzio- eta ebaluazio-fase guztietan.
- ✓ Emakumeek eta gizonak gure gizartean duten egoeraren edo/eta tokiaren eraginez existitzen diren desberdinkeria-egoerei eusten dieten edo egoera horiek areagotzen dituzten partidak berregituratzea.

3.2. Tresna: P17-Gen formularioa

Eusko Jaurlaritzak politika publikoak gorpuzteko dituen funtsezko tresnak aurrekontu-programak dira; horietan, bakoitzari dagokion aurrekontuaren zenbatekoa agertzeaz gain, xedeak eta gauzatu beharreko jarduketak ere agertzen dira.

Aurrekontu-programak genero-ikuspegitik aztertuz gero, jakin dezakegu zer egiten dugun, nola egiten dugun, norentzat egiten dugun eta zergatik egiten dugun, bai eta horretarako zenbat baliabide bideratzen ditugun ere. Azken finean, tresna horrek aukera ematen du ikusteko ea gure jarduketan bitartez egun existitzen diren desberdinkeria-egoerak murrizten, areagotzen edo berdin mantentzen ari garen, emakume eta gizonok gizartean ditugun rolak, tokiak eta bizipenak oinarri hartuta.

Ez da behin bakarrik egin beharreko jarduketa; alderantziz, jarduketa publikoak hobetzeko prozesu baten parte da eta, ondorioz, aurrekontu-programen arduradunen eguneroko lanean txertatu behar da azterketa hori.

Azterketa hori errazte aldera, P17-Gen formularioa txertatu dugu aurrekontu orokorrak gauzatzeko Arau Teknikoetan. Formulario hori aurreko aurrekontu orokorrak egiteko erabilitako P16-Gen formularioa baino argiagoa eta, aldi berean, zorrotzagoa, izan dadila nahi dugu.

Formulario hori osatzeko behar den informazioa zehatza eta osoa da adierazleei dagokienez; izan ere, besteak beste, zehaztasunez jakin nahi da jarduketan hartzaileak nor diren, kolektibo horietan zer-nolako genero-aldeak dauden eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera esplizituki zein inplizituko bideratutako aurrekontua zein den, aurrekontu-programetan hobekuntzak txertatze aldera. Beharrezko datuak biltzeko denbora, baliabideak eta gaikuntza behar dira; hori dela eta, ez dugu espero lehen saiakera honetatik bertatik formulario osoa osatu ahal izatea. Horren ordez, gure helburua da beharrianak hautematea eta horiek zuzentzeko lanean hastea.

P17-Gen formularioak bost atal hauek ditu:

1. Aurrekontu-programa eta zenbatekoa.
2. Generoaren egokitasuna: azken hartzaile gisa pertsona fisikoak, juridikoak edo kide anitzeko organoak dituzten programak.
3. Genero-garrantzia: egokiak diren programen sailkapena, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren helburua betetzeko duten garrantziaren arabera. Hiru irizpideren arabera neurtuko da: eraldatzeko ahalmena, eragiteko gaitasuna eta garrantzi funtzionala.
4. Programaren helburuak, hartzaileak eta jarduketak.
5. Hausnarketa eta hobetzeko proposamenak.

Formularioetan jasotako informazioari esker, genero-egokitasuna eta garrantzia aztertu ahal izan da, jarduketak ezagutarazi dira eta jarduketentzako hobekuntzak proposatu dira. Hala ere, ezin izan da zehaztu inplizituki zein esplizituki emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko balio duten jarduketek aurrekontuetan duten pisua zein den.


Diagnostiko sozioekonomikoa

4.1. Osasuna

4.1.1. Biztanleria



Eustaten arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) 2.171.886 biztanle ditu, eta horietatik % 51,4 emakumeak dira. Ehunekoen arteko alde hori antzekoa izan da azken urteotan.

1. grafikoa. EAEko biztanleria, adinaren arabera. 2016/01/01.




Biztanleriaren pisua adinaren arabera aztertuz gero, argi eta garbi ikus daiteke emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa dela 65 urtetik gorako adin-tartean; hain zuzen ere, 2016ko urtarilaren 1ean, adin-tarte horretan, emakumeen kopurua % 16 handiagoa zen gizonena baino.

2. grafikoa. Biztanleriaren piramidea. 2013 eta 2023.




2023rako biztanleriaren proiektzioa aintzat hartzen badugu, emaitzak kezkarriak dira. Alde batetik, bistakoa da biztanleriaren zahartze progresiboa. 2016an batez besteko adina 40 urte izatetik 2023an 50 urte izatera igaroko da. Beste alde batetik, 80 urtetik gorako biztanleetan, 2023. urtean, emakumeak biztanleen % 65 izango dira, eta gizonak, berriz, % 35.

3. grafikoa. EAEko biztanleriaren proiektzioa. 2023.




Oro har, EAEn bizi diren atzerritar gehienak Latinoamerikakoak dira (% 44,8). Atzetik datoz Europatik etorritakoak (% 20,8) eta Magrebetik etorritakoak (% 15,9).

4. grafikoa. EAEko biztanle atzerritarrak. 2014.



Sexuaren araberako banaketa aztertzen badugu, EAEn bizi diren atzerritarren % 53,1 emakumeak dira, eta batez ere Latinoamerikatik etorriak dira. Gizon gehienak, aldiz, afrikarrak dira.


5. grafikoa. EAEko biztanle atzerritarrak. 2014.



4.1.2. Bizi-itxaropena


2015ean, biztanleen bizi-itxaropenak zertxobait behera egin du; hain zuzen ere, batez beste 82,9 urte izatetik 82,7 izatera igaro da. Horren atzean dagoen arrazoi nagusia 2015ean heriotza-tasak izandako gorakada txikia da.

6. grafikoa. EAEko heriotza-tasaren bilakaera.




Hala ere, bilakaerari dagokionez, hobekuntza nabarmena da; izan ere, 2006an, batez besteko bizi-itxaropena 80,9 urtekoa zen.

7. grafikoa. Jaiotzako bizi-itxaropena EAEn.



2006. eta 2015. urteen artean, emakumeen bizi-itxaropena gizonena baino 5,9 urte luzeagoa zen. Hala ere, azken urteotan, bizi-itxaropenen arteko alde hori murriztu egin da. Hala, 2006an, emakumeak gizonak baino 6,5 urte gehiago bizi ziren; 2015ean, aldiz, 5,5 urte gehiago baino ez ziren bizi. Beste alde batetik, gizonezkoen heriotzaren ratioa (Espainian bizi ziren hildako 100 emakumezko bakoitzeko hildako gizonen kopurua) nabarmen gutxitu da, beherago ageri den grafikoa ikus daitekeen moduan. 2006an, ratioa 112,8koa zen; 2015ean, berriz, ratioa 100,27koa baino ez da.


8. grafikoa. Gizonezkoen heriotzaren ratioaren bilakaera EAEn.



4.1.3. Jaiotza-tasa


Jaiotza-tasarik altuena 1976. urtean izan zen (19,7), “70eko hamarkadako boom-a” izeneko fenomenoaren eraginez, eta hortik aurrera joera beheranzkoa izan da argi eta garbi, geroago zertxobait suspertu bazen ere. 2015. urtean, jaiotza-tasa 8,7koa izan zen soilik.

9. grafikoa. EAEko jaiotza-tasaren bilakaera. 1975-2015.




2015ean, EAEn erditu ziren emakume gehienak atzerritarrak ziren.

10. grafikoa. 2015eko EAEko jaiotza-tasa, amaren herritartasunaren arabera.




Ama izatea erabakitzen duten emakumeen adinak gora egiten jarraitzen du; 2015ean, adin hori 32,8 urte zen.

11. grafikoa. Ama izateko batez besteko adinaren bilakaera EAEn.



12. grafikoa. Bizirik jaio diren haurrak, amaren adinaren arabera, EAEn, 2015ean.



4.1.4. Osasun-baliabideak

Oro har, emakumeak gizonak baino gehiagotan joaten dira familia-medikuarengana, nahiz eta aldea ez den oso handia.

1. taula. Familia-medikuarengana jo duten herritarrak (milaka), kontsulta kopuruaren eta sexuaren arabera. EAE. 2014.

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Guztira	1429,3	661,2	768,1
Osasun-arazoak	102,5	48,6	53,8


Gaixotasun kronikoak	284,5	130,2	154,3
Gaixotasun ez kronikoak	1042,4	482,4	560
Behin	364,8	187,9	176,9
Osasun-arazoak	8,2	3,3	5
Gaixotasun kronikoak	44,6	23,8	20,7
Gaixotasun ez kronikoak	312	160,8	151,2
Bitan	409,6	202,3	207,3
Osasun-arazoak	23,7	12,7	11,1
Gaixotasun kronikoak	64,5	34,3	30,2
Gaixotasun ez kronikoak	321,4	155,4	166
Hirutan	202,1	91,3	110,9
Osasun-arazoak	10,8	5,8	5
Gaixotasun kronikoak	39,3	15,4	23,9
Gaixotasun ez kronikoak	152,1	70,1	82
Hirutan baino gehiagotan	452,8	179,7	273
Osasun-arazoak	59,7	26,9	32,8
Gaixotasun kronikoak	136,1	56,7	79,4
Gaixotasun ez kronikoak	256,9	96,1	160,8

Iturria: EUSTAT. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Eustaten datuen arabera, ospitalizazioak kontuan hartuta, emakumeak batez ere nerbio-sistemarekin eta zentzumen-organoekin zerikusia duten gaixotasunengatik eta begietako arazoengatik joaten dira ospitalera. Gizonek, berriz, digestio-aparatuarekin zein arnas aparatuarekin zerikusia duten gaixotasunak eta sabelaldeko barrunbeko herniak izaten dituzte gehienbat.

Haurdunaldiak eta erditzeak eragindako ospitalizazioak (% 7) alde batera utzita, ospitalizazioen % 66 gizonei dagozkie.

13. grafikoa. Ospitalean alta jaso duten pazienteak EAEn, 2015ean.




4.2. Denbora

4.2.1. Etxeko lanak egiteko erabilitako denbora

Taulan argi ikus daiteke egunerokoan batez ere emakumeek egiten dituztela etxeko lanak.

Gizonen kasuan, aldiz, gehienek noizean behin egiten dituzte etxeko lanak, edo inoiz ez, bestela.


14. grafikoa. Etxeko lanak egiteko maiztasuna, 16 urte edo gehiagoko pertsonen dagokienez, 2016. urtean.



4. 2.2. Kontziliatzera bideratutako denbora

Familiartekoak zaintzeko lana uzten duten emakumeen ehunekoa oraindik ere gizonena baino askoz ere handiagoa da; hori horrela izan da beti 2008 eta 2014 artean.


15. grafikoa. Familia-arrazoiak direla eta lan-merkatutik atera diren biztanleen banaketa, sexuaren arabera. Espainia. 2008-2014.



Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

Lan-merkatua utzi dutenen tasa aztertuz gero, bien arteko tartea murriztu dela ikus daiteke.


16. grafikoa. Lan-merkatua utzi dutenen tasa, sexuaren arabera. Espainia. 2008-2014.



Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

Deigarria da 2008-2014 aldian familiartekoak zaintzeko eszedentzien % 95 inguru emakumeentzat izan direla, eta aldi osoan zehar ehuneko hori ez da ia aldatu.

17. grafikoa. Familiartekoak zaintzeko eszedentzien banaketa. EAE. 2008-2014.




Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

4.2.3. Kirola egiteko erabilitako denbora


2015ean eman ziren kirol-lizentzia federatuen % 80 gizonentzat izan ziren, eta gainerako % 20 baino ez emakumeentzat.

18. grafikoa. Kirolariei emandako lizentzia federatuen kopurua 2015ean.




Horrez gain, kirol batzuetan emakumeen presentzia askoz ere handiagoa da, besteak beste, gimnasia eta boleibolean, baita hipikan ere. Bestalde, kirol askoz ere gehiagotan, gizonen parte-hartzea nabarmen handiagoa da; izan ere, grafiko hauetan ikus daitekeen moduan, ageri diren 10 kirolekin lizentzien % 90 baino gehiago gizonen esku daude.

19. grafikoa. Emakumeak nagusi diren kirolak, lizentzia federatuen arabera, 2015ean.



20. grafikoa. Gizonak nagusi diren kirolak, lizentzia federatuen arabera, 2015ean.





4.3. Ezagutza

Biztanleen % 74,1ek Internet erabiltzen du. Gizonen % 77,1ek eta emakumeen % 71,2k Internet erabiltzen dute. Kasu honetan, generoen arteko aldea ia % 6koa da.

21. grafikoan ikus daiteke belaunaldien arteko alde nabarmena dagoela 45 urtetik aurrera.


Beste alde batetik, biztanleen % 77,3k ordenagailua dauka. Gizonen % 79,6k ordenagailua dauka etxean; aldiz, emakumeen % 75,1ek baino ez dute ordenagailua etxean.

21. grafikoa. EAEko 15 urteko edo gehiagoko biztanleak. Internet erabiltzen dutenak. Etxean ordenagailua dutenak. 2016.



Joan den urtean, etxean % 81,2k zuten Interneterako sarbidea. Zehazki, gizonen % 83,4k eta emakumeen % 79,1ek zuten Internet etxean.

22. grafikoa. Etxean Internet duten 15 urteko edo gehiagoko biztanleak.



4.4. Enplegua

Azken 10 urteotan, emakumeen jarduera-tasa etengabe hazi da, beste 7 puntu eskuratu arte. Aldiz, krisiak gogor eragin dio gizonezkoen jarduera-tasari eta, oro har, beherakada txikia izan du. Bi joera horiei esker, jarduera-tasan sexuen artean zegoen aldea ia erdira murriztu da.

2. taula. 16 urte edo gehiagoko biztanleen jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasa, sexuaren arabera. EAE. 2005-2015.

		2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
JARDUERA-TASA	Gizonak	65,3	64,6	65,1	64,4	63,9	63,8	63,1	61,4	63,1	63,0	63,3
	Emakumeak	45,0	45,4	45,2	46,7	47,6	48,2	49,4	49,3	50,7	52,0	52,2
	Aldea (G-E)	20,3	19,2	19,9	17,7	16,3	15,6	13,7	12,1	12,4	11,0	11,1
ENPLEGU-TASA	Gizonak	62,3	62,2	63,1	62,2	58,5	57,7	56,0	53,9	53,2	52,7	53,5
	Emakumeak	41,9	43,4	43,5	44,7	43,9	44,1	44,3	43,7	43,3	43,7	44,3
	Aldea (G-E)	20,4	18,8	19,6	17,5	14,6	13,6	11,7	10,2	9,9	9,0	9,2
LANGABEZIA-TASA	Gizonak	4,7	3,7	3,0	3,4	8,4	9,6	11,2	12,1	15,7	16,3	15,6
	Emakumeak	7,0	4,5	3,6	4,2	7,8	8,6	10,3	11,4	14,4	15,9	15,1
	Aldea (G-E)	-2,3	-0,8	-0,6	-0,8	0,6	1,0	0,9	0,7	1,3	0,4	0,5

Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

Aurrerago ageri den taulan ikus daitekeen moduan, ikasketa-maila faktore garrantzitsua da lan-merkatuan sartzeko unean, bai eta krisi ekonomikotik babesteko faktorea ere, hala gizonentzat nola emakumeentzat. Gainera, gizonen eta emakumeen arteko alderik txikiena goi-mailako ikasketak dituztenengan aurki daiteke.

3. taula. 16 urte edo gehiagoko biztanleen jarduera-tasa, hezkuntza-mailaren eta sexuaren arabera. EAE. 2008-2014.

16 urte edo gehiagoko biztanleen okupazio-tasa		Guztira	Lehen mailako ikasketak	Erdi - mailako ikasketak	Goi-mailako ikasketak
2008	Gizonak	62,1	29,6	72,7	74,5
	Emakumeak	44,4	12,6	56,1	73,1
	Aldea (G-E)	17,7	17	16,6	1,4
2009	Gizonak	58,6	25	68,4	72,5
	Emakumeak	43,9	12,2	53,1	73,5
	Aldea (G-E)	14,7	12,8	15,3	-1
2010	Gizonak	57,8	24,2	66,6	73,8
	Emakumeak	44,2	12,4	52,9	72,2
	Aldea (G-E)	13,6	11,8	13,7	1,6
2011	Gizonak	56,1	22,2	64,4	72,1
	Emakumeak	44,3	11,9	53,2	72,4
	Aldea (G-E)	11,8	10,3	11,2	-0,3
2012	Gizonak	53,5	17,4	61,5	69,9
	Emakumeak	43,3	10	51,7	70,9
	Aldea (G-E)	10,2	7,4	9,8	-1
2013	Gizonak	53,6	14,3	61,6	68,8
	Emakumeak	43,6	7,2	53	69,9
	Aldea (G-E)	10	7,1	8,6	-1,1
2014	Gizonak	53,6	12,2	61,1	68,9
	Emakumeak	44,2	6,3	51,6	71,6
	Aldea (G-E)	9,4	5,9	9,5	-2,7

Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

Okupazio-tasan dagoen genero-aldeari dagokionez, esan beharra dago azken urteotan murriztu egin bada ere, zenbat eta seme-alaba gehiago izan aldea orduan eta handiagoa dela.

4. taula. 16 urteko edo gehiagoko biztanleen okupazio-tasa, seme-alaba kopuruaren eta sexuaren arabera. EAE. 2008-2014.

16 urte edo gehiagoko biztanleen okupazio-tasa		Guztira	Seme-alabarik ez	Seme-alaba bat	Bi seme-alaba edo gehiago
2008	Gizonak	62,1	51,7	70,3	85,5
	Emakumeak	44,4	38,6	47,2	58,3
	Aldea (G-E)	17,7	13,0	23,1	27,2
2009	Gizonak	58,6	48,4	65,2	83,6
	Emakumeak	43,9	37,2	47,0	59,9
	Aldea (G-E)	14,7	11,2	18,2	23,7
2010	Gizonak	57,8	46,9	64,1	84,3
	Emakumeak	44,2	36,0	48,4	62,0
	Aldea (G-E)	13,6	10,9	15,7	22,3
2011	Gizonak	56,1	45,0	64,8	82,6
	Emakumeak	44,3	35,7	49,9	63,2
	Aldea (G-E)	11,8	9,3	14,9	19,4
2012	Gizonak	53,5	41,5	63,5	81,5
	Emakumeak	43,3	34,7	47,5	64,3
	Aldea (G-E)	10,2	6,8	16,0	17,2
2013	Gizonak	53,6	41,1	63,9	82,4
	Emakumeak	43,6	34,3	48,9	65,1
	Aldea (G-E)	10,0	6,8	15,0	17,3
2014 (**)	Gizonak	53,6	41,8	63,3	81,5
	Emakumeak	44,2	34,6	49,9	66,0
	Aldea (G-E)	9,4	7,2	13,4	15,5

Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. Berdintasunerako Administrazio Unitatea


Kontratu mota aztertzen badugu, hurrengo taulan ikusiko dugu aldagaiak mantendu egin direla: gizonek, batez ere, lanaldi osoko aldi baterako kontratuak dituzte eta, emakumeek, berriz, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak.

5. taula. Kontratu mota bakoitzaren kontzentrazio-maila sexu bakoitzeko biztanleen artean. EAE. 2012-2015.

	2012		2013		2014		2015	
	G	E	G	E	G	E	G	E
Mugagab ea, LP	1,4	2,9	1,9	3,4	1,6	3,5	1,6	3,4
Mugagab ea, LO	5,3	3,2	4,5	3,3	5,1	3,6	5,2	3,6
Aldi baterakoa , LP	23,4	48,0	24,3	49,4	24,7	49,8	24,8	49,0
Aldi baterakoa , LO	69,9	45,9	69,4	43,9	68,6	43,1	68,4	44,0
Kontrata zioak, guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. Berdintasunerako Administrazio Unitatea.


23. taula. Lanaldi partzialen tasa, sexuaren arabera. EAE. 2008-2015.



Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

Emakume zein gizonek lanaldi partzialak izateko arrazoi nagusia lanaldi osoko lanik aurkitu ezin izana bada ere, emakumeen kasuan, bigarren arrazoi nagusia zaintza-lanak eta familiarekiko betebeharrak dira; gizonen kasuan, aldiz, bigarren arrazoi hori prestakuntza da.

24. grafikoa. Lanaldi partziala izateko arrazoiak Espainian, 15 eta 64 urte arteko biztanle artean, sexuaren arabera. 2014.



Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. berdintasunerako Administrazio Unitatea.

Oinarrizko ikasketak dituzten pertsonen dute kontratazio-maila handiena. Talde horretan dago alderik handiena; 2015ean, gizonak emakumeak baino 10 puntu gorago zeuden. Horien atzetik, unibertsitateko ikasketak dituztenak daude.

6. taula. Kontratazioen kontzentrazio-maila, ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera. EAE. 2012-2015.

Mila	2012		2013		2014		2015	
	G	E	G	E	G	E	G	E
Derrigorrezko ikasketak edo gutxiago	52,3	39,0	51,2	39,2	50,6	39,3	49,0	39,3
Erdi-mailako LH	11,3	13,1	11,5	13,0	11,8	12,8	11,8	12,4
Goi-mailako LH	7,8	7,0	7,8	6,4	8,2	6,7	8,9	7,2
Batxilergoa	19,6	24,5	19,9	23,8	19,8	23,5	20,2	23,7
Unibertsitatea	9,0	16,5	9,5	17,7	9,7	17,7	10,1	17,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

Deigarria da sexuen artean dagoen aldea 45 urtetik gorako pertsonen kontratazioetan, nahiz eta alde hori azken 4 urteetan murriztu egin den. 20 eta 24 urte arteko adin-tartean, 10 puntuko aldea dago ia denbora guztietan, gizonen mesedetan. Aldiz, 30-44 urteko tartean, genero-aldea handitu egin da 2012 eta 2014 artean.

7. taula. Kontratazioen banaketa adinaren eta sexuaren arabera. EAE. 2012-2015.

Mila	2012		2013		2014		2015	
	G	E	G	E	G	E	G	E
<20	49,67	50,33	50,58	49,42	49,83	50,17	50,45	49,55
20-24	45,22	54,78	44,38	55,62	44,98	55,02	45,81	54,19
25-29	50,04	49,96	49,45	50,55	49,64	50,36	49,75	50,25
30-44	51,83	48,17	52,45	47,55	53,47	46,53	53,71	46,29
45 eta +	42,64	57,36	43,05	56,95	44,60	55,40	45,65	54,35
Guztira	48,53	51,47	48,72	51,28	49,56	50,44	49,98	50,02

Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

2015. urtean, zuzendaritza- eta kudeaketa-lanpostuak nagusiki gizonen esku zeuden oraindik ere. Gauza bera gertatzen da lehen sektoreko, industriako eta eraikuntzako postu kualifikatuetan, besteak beste. Emakumeek, batez ere, arlo hauetako lanpostuak dituzte: kontabilitatea eta administrazioa, zerbitzuen sektorea eta pertsonen zaintza.

8. taula. Landunen sexuaren araberako banaketa, lanbideka, EAEn. 2015. BANAKETA- ETA KONTZENTRAZIO-INDIZEAK.

Lanbideak	EMAKUMEAK			GIZONAK		
	Guztira (mila)	BI	KI	Guztira (mila)	BI	KI
Zuzendariak eta kudeatzaileak	18,3	% 36,82	% 4,35	31,4	% 63,18	% 6,65
Teknikariak eta profesional zientifiko intelektualak zein	110,3	% 54,88	% 26,20	90,8	% 45,17	% 19,24
Teknikariak; profesional	26,7	% 30,10	% 6,34	62	% 69,90	% 13,14

laguntzaileak						
Kontulariak, administrariak eta bulegoko langileak	74,7	% 69,10	% 17,74	33,4	% 30,90	% 7,08
Ostalaritza, merkataritza osasuna, pertsonen zaintza eta segurtasuna	111,8	% 67,59	% 26,56	53,5	% 32,35	% 11,34
Lehen sektorea, lanpostu kualifikatuak	2,8	% 30,43	% 0,67	6,4	% 69,57	% 1,36
Manufaktura-industria eta eraikuntza, lanpostu kualifikatuak	9,5	% 8,38	% 2,26	103,9	% 91,62	% 22,02
Instalazio makinetako langileak eta muntatzaileak	9,3	% 11,68	% 2,21	70,3	% 88,32	% 14,90
Oinarrizko lanpostuak	57,6	% 74,04	% 13,68	20,2	% 25,96	% 4,28
Guztira	421,0	% 47,15	1,00	471,9	% 52,85	% 100

Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

4.5. Dirua


Azken urteotan, soldaten arteko aldea handitu egin da. Zerbitzuen sektoreak 2012an erdietsi zuen goreneko puntua; hurrengo urtean, baina, 2009ko parametroetara itzuli zen. Azpimarratu beharra dago industria-sektoreko soldatetan aldea handitu egin dela; sektore horretan, gainera, soldatak altuagoak izan ohi dira.

9. taula. Lanordu bakoitzeko irabazitakoa (eurotan)

	Emakumeak	Gizonak	Soldaten arteko aldea (€)	Soldaten arteko aldea (%) ((G-E)*100/h)
2008	14,26	17,44	3,18	18,23
2009	14,82	17,98	3,16	17,58
2010	15,74	18,60	2,86	15,38
2011	15,22	18,58	3,36	18,08
2012	15,27	19,10	3,83	20,05
2013	15,38	19,13	3,75	19,60

Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

25. grafikoa. Urteko soldata gordinen arteko aldea, sektoreka (%)




Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

Kontratu mugagabeetan, soldaten arteko aldea 2012an izan zen handiena; hain zuzen ere, alde hori % 28koa izan zen, hau da, kontratu berarekin, gizonek emakumeek baino % 28

gehiago irabazi zuten. Sexuen arteko alde hori askoz ere txikiagoa da aldi baterako kontratuetan; hala, 2013an, gizonak emakumeek baino % 3,78 gehiago irabazi zuten.


26. grafikoa. Urteko soldata gordinen arteko aldea, kontratu motaren arabera (%)



Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. berdintasunerako Administrazio Unitatea.

DSBE espedienteen arabera, emakumeentzat izapidetutako espediente kopurua gizonentzat izapidetutakoena baino askoz ere handiagoa da; joera hori horrela mantendu da 2014ko maiatzetik 2016ko maiatzera.

27. grafikoa. Aktibo dauden DSBE espedienteak, sexuaren arabera. EAE. 2014ko maiatza - 2016ko maiatza.



Iturria: EAEko lan-merkatuaren diagnostikoa. LANBIDE. berdintasunerako Administrazio Unitatea.


4.6. Emakumeen aurkako indarkeria

4. 6.1. Indarkeria matxistaren biktimizazioak eta hildako biktimak

Biktimizazioak egitate penal bakoitzeko salaketa kopuruak dira. Hori kontuan hartuta, biktimizazioen kopuruak progresiboki behera egin du 2014tik; hala, 2016ko maila 2011ko mailatik behera egon da, hau da, 4.693.


Indarkeria ohikoena bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa da. 2016an, era horretako biktimizazioak guztizkoaren % 77 izan dira.

28. grafikoa. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimizazioak EAEn.




2016an, indarkeria jasan duten emakumeen kopuruak behera egin du hiru alor hauetan: bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, familia barruko indarkeria eta sexu-askatasunaren aurkako indarkeria.

29. grafikoa. Indarkeriaren biktima izan diren emakumeak EAEn.



Hilketa da emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen larriena. Emakumearen Institutua emandako datuen arabera, 2016an behera egin du hildakoen kopuruak, bai Espainian bai EAEn. Hala ere, ez Espainian ez EAEn ez dago beherazko joera argirik.

30. grafikoa. Emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioz hildako emakumeen bilakaera, EAEn eta Espainian.



4. 6.2 Emakumeen Genitalen Mutilazioa (EGM) jasateko arriskua


Nazio Batuen esanetan, EGM emakume eta nesken giza eskubideen urraketa bat da, bai eta emakumeen aurkako muturreko diskriminazioa ere. Halaber, honako eskubide hauek ere urratzen ditu: osasunerako, segurtasunerako eta osotasun fisikorako eskubideak; torturarik eta tratu krudelik, gizagaberik edo apalgarririk ez jasateko eskubidea; eta bizitzeko eskubidea, prozedurak heriotza eragiten duen kasuetan.

UNICEFen esanetan, 29 herrialdetako 125 milioi emakume eta neskatok mutilazioa jasan dute edo hori jasateko arriskuan daude.

Hamarkadak dira EGM egiten duten herrialdeetatik etorritako emakumeak eta gizonak EAera iristen direla. Ondorioz, jakitun gara gure lurraldean bizi diren hainbat emakume eta neska EGM jasateko arriskuan daudela, EGM sustrai sendodun praktika baita eta gainditzeko zailak diren antzinako konnotazio soziokulturalak baititu.


Grafiko honetan, EAEn bizi diren eta EGM egiten den herrialderen batetik datozen biztanleak ageri dira: gizon eta emakumeen % 64 Nigeria eta Senegaletik datoz.

31. grafikoa. EAEn bizi diren eta EGM egiten den herrialderen batetik datozen biztanleak, 2016-01-01ean.



Mutilazioa jasateko arriskua batez ere handia da 15 urtetik beherako nesken artean. 2016ko urtarrilaren 1ean, 2.592 neska zeuden arriskuan. Aurreikusten da zenbateko horrek gora egingo duela kolektibo horrek duen jaiotza-tasa altua eta familien berrelkartzea direla eta, besteak beste.

32. grafikoa. EAEn bizi diren eta EGM egiten den herrialderen batetik datozen emakumeak, 2016-01-01ean.



4. 6.3 Emakume eta nesken salerosketa, sexu-esplotaziorako

Azken 6 urteotan, Ertzaintzak 32 emakume, horietatik 2 adingabeak, libratu ditu sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketatik.

Ertzaintzaren datu-basearen arabera, azken 6 urteotan 19 ikerketa egin dira, eta ikerketa horien harira 34 pertsona atxilotu edo ikertu dira.

10. taula. Ertzaintzak sexu-esplotaziorako salerosketatik libratutako emakumeak.


	EGINDAKO IKERKETAK	LIBRATUTAKO PERTSONAK	ATXILOTUTAKO/IKERTUTAKO PERTSONAK
2010	1	1	-
2011	6	9 (1 adingabe)	10
2012	1	1	5
2013	2	6	3
2014	1	-	-
2015	4	4 (1 adingabe)	4
2016	4	11	12
GUZTIRA	19	32	34

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila.

4.7. Boterea


2016ko irailaren 25eko hauteskundeen ondoren eraturako Legebiltzar berrian gizon baino emakume gehiago dago: 39 emakume eta 36 gizon daude. 2005etik, emakume batek betetzen du presidente kargua.

33. grafikoa. Eusko Jaurlaritzarako hautetsitako jarlekuak. 2016




Bestelakoa da 2015/05/24an Batzar Nagusietarako hautetsitako jarlekuen kasua; izan ere, gizonez osatzen da nagusiki.

34. grafikoa. Batzar Nagusietarako hautetsitako jarlekuak. 2015




2016ko ekainaren 26an Diputatuen Kongresurako egindako hauteskundeetan, gizonak betetzen zituzten hautetsitako jarlekuak % 77.

35. grafikoa. Diputatuen Kongresurako hautetsitako jarlekuak. 2016



Eraikuntzaren sektorean eta, jarraian, industrian eta lehen sektorean, 2014an, gizonezkoentzat ziren enpresetako Zuzendaritza eta Administrazio Kontseiluetako postuen % 81 eta % 92 artean. Zerbitzuen sektorean ere gizonak dira nagusi botere-esparruetan, non % 37 baita emakumezkoa.

36. grafikoa. 2014an EAEko Zuzendaritza eta Administrazio Kontseiluetan zeuden emakumeak, sektoreka



5. Diru-sarreraren azterketa

Aurrekontu Publikoa da urte naturalerako aurreikusi diren diru-sarrera eta gastuak islatzen, kontzeptuen arabera banakatzen, eta zifra orokorrak orekatzen dituen tresna. Bi zati ditu:

- Diru-sarrerak
- Gastuak

EAEko aurrekontu orokorren kasuan, hiru foru-aldundietatik jasotzen dira nagusiki diru-sarrerak; aldi berean, haiek zuzeneko eta zeharkako zergen bitartez biltzen dituzte funtsak, bakoitzak bere lurraldean. Jasotako transferentzia horiek aurrekontu-programen artean banatzen dira gastu moduan.

Aurrekontuaren bi osagaiek dute eragina erkidegoan eta, beraz, biak aztertu behar dira genero-ikuspegitik. Hori horrela izanik ere, nabarmendu behar da txosten honetan gastua aztertuko dela soilik, eta gerorako utziko direla diru-sarreraren azterketa eta superabitaren nahiz defizitaren eraginaren analisisa; hain zuzen, EAEko Aurrekontu Orokorrak genero-ikuspegiarekin aztertzeke prozesua finkatuagoa dagoenerako.

6. Gastuen azterketa

Gobernu Kontseiluak P17-Gen formularioa onartu du, eta Arau Teknikoetan txertatu du ondoren, aurrekontuko programa guzti-guztiak genero-ikuspegitik aztertzeko, eta zehazteko zein diren genero-berdintasunerako garrantzitsuak eta zer-nolako ekarpena egiten dioten. Horrenbestez, tresna giltzarria da Eusko Jaurlaritzak aurrera egin dezan berdintasunezko gizarte bat lortzeko bidean.

P17-Gen formularioak zenbait berritasun ditu iazko aldean, legealdia aldatu baita. Aldaketa-unearekin eta udaldiaren moduko beste gertaera batzuekin bat etortzeak zailago egin du formularioa betetzea. Legealdi berrian onetsitako aldaketen artean, hauek nabarmentzekoak dira:

- Bi Sail berriren sorrera ("Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa" eta "Lana eta Justizia").
- "Hezkuntza" eta "Kultura eta Hizkuntza Politika" sailen banaketa eta Zuzendaritzen birkokapena. Horrek berekin dakar langileak birkokatu beharra eta zenbait aurrekontu-programa taxutu beharra.
- Bi sail berrietarako ez da sortu oraindik Berdintasuneko Unitate Administratiborik eta, ondorioz, ezin izan dute jaso dagokion berdintasun-teknikariaren aholkularitza.

Horri guztiari esperientzia pilotu guztietan berezkoak diren zailtasunak gehitu behar zaizkio.

6.1. EAEko Administrazio Orokorreko Langileak

Jarraian erakusten diren tauletan nabaria da Administrazio Orokorren feminizazioa; aldiz, ordezkartza hori ez dator bat goi-karguen banaketarekin, batik bat, Sailburuordetzetan eta Zuzendaritzetan.

11. taula. Langileen banaketa, karguaren, sailaren eta erakunde autonomoen arabera

Saila	Sailburua		Sailburuordea		Zuzendaria	
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea
LEHENDAKARITZA	1 (*)		2	1	8	7
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA	1		3	1	8	4

AUTOGOBERNUA						
OGASUNA ETA EKONOMIA	1		3		3	4
OSASUNA	1		1		2	3
SEGURTASUNA		1	1	1	6	4
HEZKUNTZA		1	2	2	8	4
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK		1	3	1	6	6
INGURUMEN, LURRALDE-PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	1		1	2	4	1
ENPLEGUA ETA GIZARTE-POLITIKA		1	1	1	4	1
KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA	1		1	1	6	1
LANA ETA JUSTIZIA		1		1	2	3
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	1			1	1	2
EMAKUMEAREN EUSKAL INSTITUTUA				1		1
LANBIDE - EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA			1		2	
LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA					1	
KONTSUMOBIDE - KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA						1
Esleitu gabe						1
Guztira	6	5	19	13	61	43
Emakumeen ehunekoa kargu bakoitzeko		% 45		% 41		% 41

Zenbait sail oso feminizatuta daude: adibidez, Gobernantza Publiko eta Autogobernukoa, Osasuneko eta Lanbide.

12. taula. Karrerako funtzionario diren langileen banaketa, sailaren eta erakunde autonomoen arabera

Saila	Karrerako funtzionarioak	
	Gizonak	Emakumeak
LEHENDAKARITZA	21	22
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	89	145
OGASUNA ETA EKONOMIA	60	76

OSASUNA	194	351
ENPLEGUA ETA GIZARTE-POLITIKA	15	38
KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA	25	38
LANA ETA JUSTIZIA	101	160
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	4	9
SEGURTASUNA	58	72
HEZKUNTZA	329	551
EUSKADIKO AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA	3	3
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	118	138
INGURUMEN, LURRALDE-PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	73	96
EMAKUMEAREN EUSKAL INSTITUTUA	4	8
LANBIDE - EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA	241	656
LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA	2	9
KONTSUMOBIDE - KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA	14	25
LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA	40	42
Esleitu gabe	322	356
Guztira	1713	2795
Emakumeen ehunekoa		% 62

13. taula. Bitarteko funtzionario diren langileen banaketa, sailaren eta erakunde autonomoen arabera

Saila	Bitarteko funtzionarioak	
	Gizonak	Emakumeak
LEHENDAKARITZA	9	29
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	56	141
KONTSUMOBIDE - KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA	8	14
OGASUNA ETA EKONOMIA	35	60
OSASUNA	77	216
HEZKUNTZA	207	351
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	202	222
INGURUMEN, LURRALDE-PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	60	101
ENPLEGUA ETA GIZARTE-POLITIKA	22	43
KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA	28	34
LANA ETA JUSTIZIA	26	48
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	3	6
SEGURTASUNA	31	65
EMAKUMEAREN EUSKAL INSTITUTUA	5	18
LANBIDE - EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA	70	184
KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN	1	1

ADMINISTRAZIO-ORGANOAK		
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA		1
EUSKADIKO AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA		2
LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA	31	42
Esleitu gabe	1	1
Guztira	872	1579
Emakumeen ehunekoa		% 64

Behin-behineko langileak salbuespen dira; izan ere, nagusiki gizonez osatuta dago kolektibo hori.

14. taula. Lan-kontratuko, behin behineko eta bestelako langileen banaketa, sailaren eta erakunde autonomoen arabera

Saila	Lan-kontratuduna		Behin-behinekoa		Beste batzuk	
	Gizona	Emakum ea	Gizon a	Emakum ea	Gizona	Emakum ea
LEHENDAKARITZA	7	4	9	9	6	6
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	30	15	3	2	71 (*)	76 (*)
OGASUNA ETA EKONOMIA	2		5	1		
OSASUNA	17	21	2	4	1	4
ENPLEGUA ETA GIZARTE-POLITIKA		1	2	2		
KULTURA ETA HIZKUNTZA- POLITIKA	9	6	2	2		
LANA ETA JUSTIZIA	24	81	3	1		
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA					3	9
SEGURTASUNA	3	3		2		
HEZKUNTZA	55	62	2	3		
KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO- ORGANOAK					1	
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	33	15	3	2	95	83
INGURUMEN, LURRALDE- PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	16	15	2	2		
EUSKADIKO AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA					6	2
EMAKUMEAREN		1		1		

EUSKAL INSTITUTUA						
LANBIDE - EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA	84	307				
LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA	2	4				
Esleitu gabe	28	17				
Guztira	310	552	33	31	112	104
Emakumeen ehunekoa		% 64		% 48		% 48

(*)pasiboak

6.2. Aztertutako aurrekontuak

Ogasun eta Ekonomia Saileko Aurrekontu Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzako sail guztietako zerbitzu zuzendaritzei helarazi zien P17-Gen formularioa, berau azaltzen duten arau teknikoekin batera, eta urtarilaren 24a ezarri zuen entregatzeko epemugatzat. Dena dela, egoera ohiz kanpokoak zenez, arestian azaletik ere deskribatu den moduan, urtarilaren 27ra arte atzeratzeko erabakia hartu zen. Hala eta guztiz ere, gehienez ere otsailaren 3ra arte jasotako formularioak onartu dira.

Aurrekontu orokorrak genero-ikuspegitik aztertzeako prozesua aria-arian zabaldu beharreko mailakako prozesu gisa pentsatu da. EAEko aurrekontu orokorra nagusiki hauen artean banatzen da:

- Sailek, erakunde autonomoek eta Haurreskolen Partzuergoak kudeatutako aurrekontu-programak
- Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak
- Sozietate eta fundazio publikoak

Baina, oraingo honetan, ez zaie eskatu P17-Gen formularioa betetzea zuzenbide pribatuko erakunde publikoei (salbu eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari), sozietate eta fundazio publikoei, Legebiltzarrari eta sail hauei:

15. taula. Zer sailei ez zaien formalki eskatu P17-Gen formularioa betetzeko

Sekzioa	Saila
51	LAN-HARREMANEN KONTSEILUA
52	EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA
53	EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN-KONTSEILUA
54	HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

55	DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA
90	ZOR PUBLIKOA
95	ERAKUNDEEN BALIABIDEAK ETA KONPROMISOAK
99	BESTE SAIL BATZUK

Hala eta guztiz ere, Erakundeen Baliabide eta Konpromisoen Sailak bidali egin du betetako formularioa. Etorkizunean azterketan txertatzeko geratu dira gainerako sailak.

Taula hauetan ikus daitekeen moduan, 12.116 miloi euroko aurrekontu osorako eskatu da P17 formularioa bete dadila.

Nolanahi ere, zenbait sailek ez dituzte bidali beren aurrekontu-programen formularioak. Beraz, azter daitekeen aurrekontua 9.072 milioi eurokoa da; hau da, eskatutakoaren % 75.

Guztira 128 formulario bete dira, eta horietatik 50 Hezkuntza Sailari dagozkio; hain zuzen, sail horren aurrekontuak guztizkoaren % 24 hartzen du.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 7511. aurrekontu-programa ezin izan da aztertu, epez kanpo eman zuelako P17-Gen formularioa.

16. taula. Eusko Jaurlaritzako Sailen eta sektore publikoko erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontua. Aztertutako ehunekoa

SAILA		AURREKONTUA (*) €	Aurrekontua (*)		
Ata la	IZENA		Aztertuta	%	Aztertu gabe
1	LEHENDAKARITZA	111.557.000	111.557.000	% 100	
2	GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	113.076.000		% 0	113.076.000
3	EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	1.042.402.000	443.167.943	% 43	599.234.057
4	ENPLEGUA ETA GIZARTE- POLITIKA	999.863.000	999.863.000	% 100	
5	INGURUMENA, LURRALDE- PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	191.822.000	191.822.000	% 100	
6	OGASUNA ETA EKONOMIA	48.826.000	48.826.000	% 100	
7	HEZKUNTZA	2.662.584.000	2.662.584.000	% 100	
8	OSASUNA	3.537.477.000	3.537.477.000	% 100	
9	TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	36.190.000	2.142.614	% 6	34.047.386
10	KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	241.936.000	241.936.000	% 100	
11	SEGURTASUNA	625.771.000	625.771.000	% 100	
12	LANA ETA JUSTIZIA	209.774.000		% 0	209.774.000
	Guztira 1	9.821.278.000	8.865.146.557	% 90	956.131.443

51	LAN-HARREMANEN KONTSEILUA	2.418.566		% 0	2.418.566
52	EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA	1.362.853		% 0	1.362.853
53	EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA	929.443		% 0	929.443
- Genero-ikuspegia barne hartzen duten materialak sortzea; adibidez, "Adingabeen kirol talde bateko barne-komunikazioan sare sozialak erabiltzeko gida".
- BAT Basqueteam Fundazioaren erantzukizun sozialeko estrategia diseinatzea, genero-ikuspegia kontuan hartuz, eta ekintzak ezartzea.
- Berdintasunerako berariazko prestakuntza eskaintzea Kirolaren Euskal Eskolaren bitartez.
- Nazioarteko sare eta foroetan parte hartzea eliteko kirolaren kanpo proiektzioa genero-ikuspegiarekin egiteko.
- Kultur ekoizpeneko deialdietan balioespen-irizpideak txertatzea emakumezko sortzaileak eta genero-berdintasuna ikusgai egiten duten lanak gehitzea sustatzeko.

- Emakumeek kulturaren alorrean duten presentzia sendotzeko proiektu bat martxan jartzea, Kultura Auzolanean planaren esparruan.
- EITBri datuak eskatzea berdintasunaren alorreko edukiak kontrolatzeko.

Segurtasuna:

- Gazteek Ertzaintzaren promozioan izen eman dezatela sustatzea, bereziki azpimarratuz emakumeen sarbidea.
- Aholkularitza juridikoko alorreko dokumentu eta espediente guztietan erabilitako hizkera berrikustea.
- Euskal poliziaren legean berdintasunarekin lotutako neurriak txertatzeko aldaketak kudeatzea.
- Genero-ikuspegia kontuan hartzen duten aurrekontuei buruzko prestakuntza ematea programen arduradunei.
- Berdintasuneko oinarritzko ikastaroa eskaintzea saileko langileei.
- Informazio-hitzaldiak ematea ikastetxeetan, langile-elkarteetan eta herritarrei, oro har, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruz.
- Autobabeseko neurrien materiala berrikustea.
- Urteko Kudeaketa Planean honako hauek sartzea: Ertzaintzako lanbide-garapenari buruzko informazio-kanpainak emakumeentzat; berdintasunaren alorreko prestakuntza berdintasun taldeko parte-hartzaileentzat; aukeraketa-prozesuak berrikustea eta formulak aktibatzea espezializatzeko eta mailaz igotzeko ikastaroetan emakumezko langileak gehitzeko; gogoeta egitea emakumezko ertzainei egindako jazarpen sexistari buruz; tokiko polizien berdintasun taldearekin koordinatzea.
- Berdintasunari buruzko barne-jardunaldia antolatzea Ertzaintzan.
- Udaletan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta alor horretan laguntza emateko protokoloak sina daitezela sustatzea.
- Estatuko hauteskunde-araudiaren erreformari lotutako ekintzak aztertzea.
- Emakumeek hauteskunde-prozesuetan duten parte-hartzea aztertze txostena egitea.
- Sexismorik gabeko hizkeraren erabilera berrikustea Hautesgunen eta informatika-aplikazioetan.
- Genero-ikuspegia txertatzea joko arduratsuen sustapenarekin, ikuskizunetako segurtasun-baldintzen ezarpenarekin, ikusleen eskubideekin eta kiroleko indarkeriarekin lotutako ekintza guztietan.
- Twitterren sexismorik gabeko hizkera erabiltzea sustatzea.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren Laguntza Zerbitzuko langileei prestakuntza ematea sare sozialetako sexismorik gabeko hizkerari buruz.
- Genero-ikuspegia barne hartzen duen autobabesari buruzko prestakuntza.
- Genero-ikuspegia txertatzea segurtasuna sustatzeko kanpainetan.
- Genero-ikuspegia sartzea trafikoari lotutako hezkuntza- eta prestakuntza-ekintzetan.
- Genero-ikuspegia sartzea Bide Segurtasun eta Mugikortasuneko Behatokiaren ekintzetan.
- Sexuaren arabera bereizitako datuak sartzea trafikoko estatistiketan eta datuen analisisan.
- Genero-ikuspegia barne hartzen duten trafiko-azterlanak eta -analisi egitea.
- Genero-ikuspegia barne hartzen duten kanpainak, jardunaldiak eta kontzientziazio-ikastaroak egitea mugikortasun seguru eta iraunkorraren alde.

EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Institutua: (besteak beste)

- Errealitatea hobeto ezagutzen eta berdintasun-politikak hobetzen laguntzen duten azterketak egitea.
- Berdintasunerako Legearen 15.1 artikuluan aipatzen den EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan orokorra onestea.
- Emakunderen urteko plana egitea, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana garatzeko, eta aurreko urteko jarduketaren ebaluazioa kontuan hartuta.
- Eusko Jaurlaritzako sailei eta foru- nahiz toki-administrazioei bultzada eta aholkularitza ematea 4/2005 Legearen 15. artikuluan jasotako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planak egin eta garatzeko.
- Udal- eta foru-planak indarreko Berdintasunerako Planean ezarritako gidalerro orokorretara egokitzen diren ala ez zehazteko txostenak egitea, bat etorri 4/2005 Legearen 15.4 artikuluan ezarritakoarekin.
- Diru-laguntzak deitzea, ebaluatzea eta ematea, udalerriek, kuadrillek eta mankomunitateek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planak egiteko, ebaluatze eta/edo horretarako diagnostikoak egiteko.
- Euskal administrazio publikoei beren erakundean eta politikan genero-ikuspegia txertatzen eta berdintasun-politika espezifikoak egiten laguntzea, aholkularitza tekniko eta laguntza emanez, eta lanerako tresnak garatuz.
- Generoaren arloko prestakuntza eta genero-ikuspegiaren erabilera sustatzea prestakuntzan eta ikerketan.
- Administrazio-jardueran genero-ikuspegia txerta dadila sustatzea, eta lantalde, batzorde eta kontseiluetan parte hartzea.
- Emakume eta gizonen hainbat gizarte-esparrutan duten egoerari buruzko urteko txostena egitea.
- Agintari publikoek indarreko Berdintasunerako Plana gauzatzeko zer egiten duten aztertzea eta ebaluatzea.
- Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobia egiteko Erakundearen Arteko II. Akordioaren edukien betetze-mailaren segimendu- eta ebaluazio-txostena egitea.
- Indarkeriaren arloko informazio-sistema erabat osatzea; sistema horrek homogeneoa izan beharko du esparru guztietan eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimetarako programa eta zerbitzuen irismena eta eraginkortasuna ebaluatze aukera eman beharko du, baita informazioaren lehen bilketa egiteko ere.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Institutuaren jardueren urteko memoriak egitea eta Begira/Publizitate eta Komunikazio Ez Sexista Erabiltzeko Aholku Batzordeari eta Sektore pribatuan sexu-diskriminazioa jasan duten herritarrek artatzeko zerbitzuari igortzea.
- Honako hauen kudeaketa tekniko eta administratiboaz arduratzea: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Arteko Batzordea; Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera egiteko Erakundearen Arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea; BEGIRA/Publizitate eta Komunikazio Ez Sexista Erabiltzeko Aholku Batzordea; Aholku Batzordea.
- Eudel-ekin duen hitzarmenari eustea, xede hauekin: Berdintasuna sareko jarduketak garatzea, Lan Batzordeetan eta jarraipen-bilkuretan parte hartzea, udal-erri txikienetan berdintasun-politikak egitea eta jarraipenerako erakundearteko bilkuretan parte hartzea.
- Diru-laguntza izenduna ematea Eudeli, Europako Herrien eta Eskualdeen Batzordeko Berdintasun Batzordea kudeatzen laguntzeko.
- Partaidetza- eta lankidetzak-harremanak ezartzea Institutuaren antzeko helburuak dituzten estatuko, Europako eta nazioarteko beste erakunde batzuekin.

- Berdintasuna, errespetua eta biolentzia-ezerako Nahiko hezkidetza-programa gauzatzen laguntzea, Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloan ezartzeko, 2017-2019 urteetan.
- BEGIRaren Lan Plana gauzatzea, 2017ko Batzordean adostua, eta hedabideekin batera lan egitea publizitatea eta komunikazioa sexismorik gabe erabil daitezela sustatzeko.
- 2017ko XIV. Berdintasunerako Gunea antolatzea.
- Gizonduz ekimena gauzatzea, gizonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde inplikazio handia izan dezatela sustatzeko.
- Ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa sustatzea, aholkularitzaren, prestakuntzaren eta elkarteak sustatzeko laguntza ekonomikoen bidez.
- Ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatzea, bitartekoak eskuratzen eta kontrolatzen lagunduz.
- Herritarrek arlo pribatuko sexu-bereizkeriatik babestea, informazioaren, aholkularitzaren, ikerketaren eta gomendioen bitartez.
- Berdintasun-politikak gauza daitezela sustatzea enpresa eta erakunde pribatuetan, aholkularitza, prestakuntza, laguntza ekonomikoa eta gizarte-aintzatespena emanez.
- BELDUR BARIK hezkidetza-programa ezartzea Bigarren Hezkuntzako bi zikloetan.
- Gizarte emakumeenganako indarkeriaren prebentzioan inplika dadila sustatzea, gai horren inguruan sentsibilizatzeko eta/edo emakumeen aurkako indarkeriazko jarrerak prebenitzeko jarduerak sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioentzako diru-laguntzen deialdien bitartez.
- Jabetuz (emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalei zuzendutako ikastaroa) ekimenaren barneko ikastaroak sustatzea.
- Lan- eta kirol-arloan jazarpen sexual eta sexista prebenitzeko eta tratatzeko neurriak zabaltzea eta sustatzea.
- Prebentziozko esku-hartzerako eta emakumeen kontrako indarkeria-adierazpen berriei (salerosketa, emakumeen genitalen mutilazioa...) arretea emateko programak sustatzea, indarkeria-egoera berezi horiek antzematen eta horiei erantzun integrala ematen laguntzen duten eta programa espezifiko bat behar duten erakundeei diru-laguntzak emanez.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua:

- Emakumeen memoria transmititzea (gutxienez guztizkoaren % 50).

Euskal Estatistika Erakundea - EUSTAT:

- Genero-ikuspegia txertatzea estatistika eta azterketetan.
- Genero-ikuspegia txertatzea prestakuntza-jardueretan.
- Hizkuntza eta beste komunikazio-elementu batzuk sexismorik gabe erabiltzea.
- Berdintasun-printzipioa txertatzea araudian.
- Berdintasunerako klausulak sartzea kontratuetan, prestakuntza-beketan eta

hitzarmenetan.
<u>Haurreskolak Partzuergoa:</u> - Laguntza-zerbitzua ematea familiei, 3 urtetik beherako haurrak zainduz eta artatuz, familia- eta lan-bizitza bateratzeko mekanismo gisa.
<u>OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea:</u> - Datu eta adierazleak aztertzea eta EAEko osasunerako arrisku eta kalteetarako esposizioari buruzko txosten bat egitea, genero-ikuspegiarekin. - Osalaneko Berdintasunerako Administrazio Unitatea abian jartzea, Osalanen administrazio-prozesuetan eta jarduketetan genero-ikuspegia txertatzeko lanak koordinatzeko eta sustatzeko. - Osalanen administrazio-prozesu eta jarduketetan genero-ikuspegia txertatzeko prozesuan hobetu beharreko arloak antzemateko diagnostiko bat egitea. - Legegintzaldiko Berdintasun Plan bat egiteko ildo estrategikoak zehaztea. - Genero-ikuspegia enpresa eta erakundeen prebentzio-kudeaketan txertatzeko jarraibide batzuk egin eta zabaltzea. - Genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan txertatzeko dibulgaziozko materiala eta ekintzak gauzatzea. - Laneko arriskuen prebentzioari eta generoari buruzko atal bat argitaratzea Osalanen webgunean. - Genero-ikuspegidun laneko segurtasun eta osasunari buruzko jardunaldi bat antolatzea. - Genero-ikuspegia laneko arriskuen prebentzioan txertatze aldera Emakunderekin sinatutako hitzarmena garatzea.
<u>Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (EAEn):</u> - Genero-ikuspegidun justizia trantsizionala sustatzea eta genero-ikuspegiari buruzko esperientziak trukatzeko EAEn eta Erdialdeko Amerikako herrialdeen artean, demokrazia eta bakea lortzeko. Justizia trantsizionaleko prozesuetan dauden emakumeen egoerak sistematizatzea. - Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume errefuxiatuentzako nazioarteko babesak sustatzeko ahalmena duten eragileak mapaketa instituzionala egitea. Eragin politikorako estrategia-proposamen bat egitea. Laguntza eta babesaren arloko jardunbide egokiak trukatzeko erakunde espezializatuarekin (SICAR, Proyecto Esperanza, Gurutze Gorria, ACCEM, Acnur). Topaketak egitea Afrikako emakumeekin lan egiten duten erakundeekin. Proposamena Emakunderen salerosketaren mahaira helaraztea. Legelarien Euskal Kontseilura helaraztea. Hedabideekin lan egitea: sentsibilizatzea, funtsezko eragileak identifikatzea, dekalogoak egitea, gomendioak ematea. Sare sozialetan kanpaina bat egitea, bideo bat egitea. - Kongoko Errepublika Demokratikoan gatazkan dauden feminismoaren eta maskulinitasunaren ikuspegiari buruzko liburua. - Ikerketa feministarako metodologiari buruzko estatu-jardunaldiak egitea: giza eskubideetarako eta bakea eraikitzeko tresnak eta horien aplikazioak. - <i>"Situación actual y retos relacionados con delitos odio por OSIG-orientación sexual e identidad de género- en CAE, estado español, México, Guatemala y Nicaragua"</i> liburua. Gaia azaltzea EAEko 15 ikastetxe publikotan. Gaiari buruzko online ikastaroa egitea. <i>"Uniendo miradas frente a delitos odio"</i> nazioarteko topaketa egitea. Batzar Nagusietan, Eusko Jaurlaritzan eta Europako Parlamentuan hitz egitea. Ekainak 28 Koordinakundeari babesak ematea.

- Nekazarien azken lege-tresnen analisi feminista egitea. Emakume baserritarren nazioarteko topaketa, feminismo landakoagoa eraikitzeke. Landa-mundu feministagoak lortzeari buruzko prozesua argitaratzea.
- Ekonomia feministaren eskola ugaritzea Bizkaiko lau erakundetan, Gipuzkoako bitan eta Arabako bitan. Euskadiko Ekonomia Feministaren III. Topaketa. "Mesoamericanas en Resistencia por una Vida Digna" sareko eskolei buruzko erakusketa ibiltaria. Tokiko eta mundu-mailako ekonomia feministaren ekarpenei buruzko liburua.
- Sexu-aniztasunerako eskubideari buruzko nazioarteko jardunaldiak. Emakumeek erabakitzeke eskubidearen aldeko nazioarteko kanpainari buruzko dokumentala.
- Gai hauen inguruko analisi feminista: bidezko merkataritza, finantza etikoak, indarkeria matxistak eta kontsumoa. Indarkeria matxisten eraginari buruzko kanpaina. Kontsumoa eta banka, eta genero-desberdinkeriak. Emaitzak gizarteratzea, Fiare biltzarrarekin.
- Genero-ikuspegidun Garapen Iraunkorrerako Helburuei buruzko ikastaroa. Tailerrak eskoletan. Ikus-entzunezkoak sortzea. Kanpainak irratietan.
- Etikari, zaintzari, generoari, erantzunkidetasunari eta herritar globalei buruzko prestakuntza, irakasle/ikasleei zuzendua. Etikaren eta zaintzen pedagogiaren ikuspegitik garapen-eredu zuzen eta erantzunkideak abian jartzeko esperientziak trukatzeko iparralde eta hegoaldeko erakundeen artean.
- Merkataritza askeko itunak ikertzea, bizitzaren jasagarritasunaren ikuspegi feministatik. TTIParekiko erresistentziei eta beste aukera batzuei buruzko online prestakuntza, ikuspegi feministatik.
- Emakumeek egindako zinema arabiarraren karabana egitea.

6.6. Nabarmendu beharreko hobetzeko proposamenak

Jarraian zehaztutako neurrien helburua da aurrekontu-programen edukia hobetzea, berdintasuneko gizarte bat lortzeko bidean aurrera egiteko.

23. taula. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea edo bermatzea helburu duten hobetzeko proposamenak

Lehendakaritza:

- Saileko aurrekontu-programak egiteaz arduratzen direnen barne-prestakuntza sustatzea.
- Berdintasunaren arloko ekintzak sustatzeko eginiko lana esplizituki txertatzea Gobernuaren eta lehendakariaren jarduketara instituzionalaren esparruan.
- Kanpoko Harremanen programan: euskal zentroek ahultasun-egoeran dauden emakumeak identifikatzea. Euskal zentroen osaera aintzat hartzea esleipenetan, emakumezkoen ordezkartza parekidea positiboki baloratuz. Laguntza-eskatzailearen sexua ezagutzeko aukera emango duen eremu bat gehitzea.

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna:

- Edozein diru-laguntza ildo kudeatzen hasi aurretik, zuzentzen zaion kolektiboari buruzko datuak ezagutu ahal izateko estatistikak eskuratzea.

- Generoaren arloko prestakuntza espezifikoa ematea, aurrekontuak egiteari aplikatuta (informazioa eskuratzea eta helburu eta ekintzak zehaztea).

Enplegu eta Gizarte Politikak:

- Maila anitzeko prozesu batean lan egitea, programa bakoitzeko aurrekontu-memoriak egiteko erantzukizuna duten langile politiko eta teknikoak eta sail guztietako berdintasun-unitateak barne harturik, neurri honetan behar bezala aurrera egitea ahalbidetuko duen informazio eta gaikuntza egokirako prozesu bat lantzeko.
- Informazio/prestakuntza prozesu mailakatu bat abian jartzea aurrekontuak egiten dituzten pertsonekin, onuradunak eta horien mailak identifikatzeko (zuzenekoa, bitartekoa, zeharkakoa).
- Lan egiten jarraitzea urteroko aurrekontuetan behar diren baliabide ekonomikoak esleitzeko eta zehazteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legean (4/2005 Legea) ezarritako funtzioak eta neurriak gauzatu ahal izateko.
- Saileko Berdintasun Planean ezarritako helburuak eta jarduketak agerian jartzeko aurrera egitea.
- Programa eta/edo zerbitzuen hartzaileen datuak sexuaren arabera bereizita sartzeko aurrekontu-memorien betetze-mailaren txostenetan.
- Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko zerbitzuak (SATEVI) koordinatzea eta kudeatzea.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako diru-laguntzak kudeatzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko modulu espezifikoak sartzeko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren esparruan gauzatutako prestakuntza-programetan.

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza:

- P-Gen formularioak betetzen dituzten pertsona guztiak sentsibilizatzea.
-

Ogasuna eta Ekonomia:

- Berdintasunaren arloko prestakuntza ematea Saileko langileei, bai goi-karguei bai beheragoko langileei.
- Sail bakoitzak pleguetako klausula betetzeko aukera emango dion inkesta bat bete dezake, estatistikoki jasota gera dadin Kontratuen Erregistroan.
- Kontratisten Erregistroan inskribatzeko formularioetako hizkuntzaren erabilera berrikustea.
- Hizkuntzaren eta beste komunikazio-elementu batzuen sexismorik gabeko erabilera txertatzea administrazioko kontratazioaren aholkularitza-batzordean.
- Enpresatako Lizitatzaileren Erregistroko eta Sailkapeneko formularioen terminologia berrikustea.
- Kontratazio-prozeduretan berdintasun-klausulak txertatzen dituen publikotasun- eta gardentasun-tresna bat garatzea.

Hezkuntza:

- Genero-ikuspegia duten orientazioak sartzeko Haur eta Lehen Hezkuntzako errefortzu eta laguntzako esku-hartzeetan.
- Emakumeen presentzia indartzen jarraitzea presentzia eskasa duten titulu edo ziurtagirietan.
- Genero-irizpideak sartzeko diru-laguntzetako hautaketa eta emakidak arautzen dituzten oinarrietan (lanbide-heziketa).

- Genero-adierazleak erabiltzea diruz lagundu beharreko ekintzen ebaluazioan (lanbide-heziketa).
- Datuak sexuen arabera bereizita aurkeztea (lanbide-heziketa).
- Genero-ikuspegidun hezkuntza-ekimen aktiboak sortzea, estereotipoak hausten laguntzeko.
- Genero-ikuspegidun neurri proaktibo gehigarriak sartzea, batetik, eskaintzan eta, bestetik, eskolara egokitzeke zailtasun larriak dituzten ikasleei nahiz ikasle ijitoei zuzendutako programetan parte hartzen duten hezkuntza-eragileentzat.
- Genero-ikuspegitik, zuzenean nahiz zeharka, unibertsitate-irakaskuntzan dauden genero-aldeak murriztuko dituzten politikak sartzea pixkanaka.
- "Aniztasunean elkarrekin bizitzen ikasi" programa berriz abian jartzea (une honetan azken fasean dago), genero-indarkeriaren prebentzioa harturik jarduteko ardatz. Aldi berean, nabarmen sendotu behar dira programaren irismena, esku-hartzearen eredia eta aurrekontu-zuzkidura.
- DBHko eta Batxilergoko ikasleen unibertsitate-orientazioa ikertzea, baita alde zuzenetik zuten bokazioaren eta azkenean aukeratzen dutenaren arteko korrelazioa ere. Aztertu behar da, halaber, zer-nolako aldea dagoen Batxilergoan amaitzen duten ikasleek hirugarren-mailako hezkuntzarako (unibertsitatekoa nahiz lanbide-heziketakoa) egindako hautuan.
- Neurri bereizitako sartzea (finantzazio-gehiarri txikiak, emakumezko ikasleen gaitasun eta identitate digitala bermatzeko), Lehen Hezkuntzatik Batxilergoan, eten digitala hauteman delako eskuratzeko aukeran (gailu digitalak eskuratzeko laguntza-programa).
- Genero-ikuspegia txertatzea Hizkuntza Murgiltzeko Zentroetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei eskaintzen zaizkien jardura eta egoeretan.
- Genero-ikuspegia txertatzea Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroan eskaintzen diren jardura eta egoeretan.
- "Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea" programaren barnean bereizkeriarik dagoen aztertzeta.
- Genero-aldeak identifikatzea "Ikerketa" programan, eta ondoren horiek zuzentzeko neurriak proposatzea.

Osasuna:

- Saileko langileentzako berdintasunaren arloko prestakuntza ahalbidetzea.
- Hizkuntza inklusiboa erabiltzea programa hauek idaztean: "Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa", "Osasun Publikoa", "Osasun Ikerketa eta Plangintza", "Farmazia".
- Mutilen giza papilomabirusaren aurkako txertoa jartzeko aukera aztertzeta, birusa transmititzen baitute.
- Genero-ikuspegia aintzat hartzea medikamentuen ikerketetan.
- Mendekotasunen prebentzioaren eta osasunaren sustapenaren arloko programa espezifikoak sortzea, emakumeen behar espezifikoak kontuan hartuta.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa:

- Edozein diru-laguntza ildo kudeatzen hasi aurretik, zuzentzen zaion kolektiboari buruzko datuak ezagutu ahal izateko estatistikak eskuratzeko.
- Generoaren arloko prestakuntza espezifikoak, aurrekontuak egiteari aplikatuta (informazioa eskuratzeko eta helburu eta ekintzak zehazteko).

Kultura eta Hizkuntza Politika:

- Eskola-kirolean nesken eta mutilen artean dauden bereizkeriei buruzko ezagutza hobetzea, eta programazioa egokitzea.

- 14 urtetik gorako nesken kirol-jarduera sustatzea, bai kirol federatuetan bai aisialdikoan.
- Lankidetzaz-estrategiak garatzea, hezkuntzako curriculumean genero-indarkeria prebenitzeko eta estereotipo sexistak desagerrarazteko asmozko eduki bateratua sartzeko.
- Emakumeek kirol-ikasketetan duten parte-hartzea haz dadila sustatzea.
- Genero-ikuspegia aintzat hartzen duen hezkuntza-eskaintza babestea kirol profesionalaren eta jarduera fisikoaren esparruan.
- Emakumeak eta gizonak kirola egiteko motibatzen dituen azterketa diferentzialean sakontzen jarraitzea.
- Kirol-jarduerak eta -baliabideak erraztea eta hobetzea, emakumeen parte-hartzea sustatzeko.
- Berdintasunaren printzipioa sustatzea kirol federatuan.
- Federazioen antolamendu-politiketan genero-ikuspegia sar dadila sustatzea.
- Nesken goi-mailako kirola babesten jarraitzea.
- Nesken goi-mailako kirola agerian jartzea, gizarte-aitorpenaren bidez eta erreferente positiboak sortuz.
- Emakumezko arbitro, entrenatzaile eta kirol-epaileen egoerari buruzko diagnostikoa egitea.
- Kirol-elkarteetako erabaki-organoetan ordezkaritza orekatua izan dadila sustatzea.
- Diru-laguntzetan berdintasun-klausulak sartzeko.
- Nazioarteko kirol-jarduera mistoak edo emakumezkoenak antolatzea eta/edo babestea.
- Emakume eta gizonen kirol-baliabideak eskuratzeko dituzten aukera desparekoen azterketan sakontzen jarraitzea.
- Emakumeen kirolaren presentzia hedabideetara proiektatzea.
- Kirolaren berri ematen dutenek berdintasunaren printzipioa aintzat hartzeko konpromiso deontologikoa sustatzea.
- Elkarteek kirolaren arloko indarkeria sexista desagerrarazteko egiten dituzten kanpainetan parte hartzea.
- Kirolaren arloko indarkeria sexistaren analisia sustatzea. Prebentzio-politikak sustatzea, sentsibilizazio-kanpainak diseinatzea, protokoloak aplikatzea. Kirolaren sektoreak indarkeria sexista prebenitzeko jarduerak programatu, planifikatu eta arautu ditzala sustatzea.
- Azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuaren arabera, EITBk berdintasun-teknikari lanpostu bat sortu behar du, baina oraindik ez du egin.

- Segurtasuna:
- Gizarteari zuzendutako babesari eta segurtasunari buruzko komunikazioak emakumeengana ere iristen diren aztertzea.
- Sexismorik gabeko hizkuntzari buruzko gida sortzea eta komunikazio-elementuak zaintzea.
- Ertzaintzako emakume eta gizonen egoera eta bilakaera ezagutzeko estatistikak eta azterketak egitea.
- Ertzaintzan lan- edo sexu-jazarpenari edo sexuaren nahiz sexu-orientazioaren ondoriozko jazarpenari aurre egiteko protokoloa onartzea.
- Jardunaldi bat antolatzea emakumeek hauteskunde-prozesuetan duten parte-hartzea aztertzeko txostenaren emaitzak gizarteratzeko.
- Protokolo bat ezartzea erabiltzaileen eskubideak sendotzeko erreklamazioak biltzeko, datuak generoaren arabera bereizita bilduz.
- Publizitate-ekintzak baimentzeko, baldintza gisa jartzea sexismorik gabeko mezuak izan ditzatela eta joko arduratsuari buruzko estereotiporik izan ez dezatela.
- Joko-enpresetako titular eta langileentzat nahitaezko bihurtzea genero-educia duten prestakuntza-ikastaroak egitea.

- Genero-ikuspegia txertatzea Ikuskizunen Erregelamenduan.
- Genero-ikuspegidun prestakuntza-ikastaroak sustatzea ikuskizunen antolatzaileentzat, ikuskizunetarako lokalen titularrentzat eta horietako langileentzat.
- Ikuskizunetarako sarbidearekin eta sarrera ukatzeko eskubidearekin lotura duten pertsonen bermeak sendotzea, sexuan oinarritutako bereizkeria-jarrerak saihesteko.
- Kirol-ikuskizunetan indarkeria sexista eta homofobia desagerrarazteko neurriak sartzeari –adibidez, sentsibilizazio-kanpainak– Segurtasun Sailak eta kirolaren arloko klub, sozietate anonimo eta federazioek indarkeria, arrazismo, xenofobia eta tolerantziarik ezari aurre egiteko hartutako konpromisoen artean.
- Kirolarien eta ikuskizunetan parte hartzen duten emakumeen (esaterako, arbitroak, kirolariak edo ikusleak) aurkako jarrera sexistak zigortzea, eta halako zigorrei buruzko datuak biltzea.
- 112-SOSDeiak-en deiei erantzuten lan egiten dutenek erabilitako taktiketako Dei Kartetan bildutako datuak biltzea, generoaren arabera bereizita.
- Erakunde-kulturaren aldaketa sustatzea Larrialdi eta Meteorologiako Zuzendaritzan, errespetu-faltei eta komentario matxistei lotutako lan-gatazkak konpontzeko, eta lanerako giro atsegin eta integratzailea sortzeko.
- Genero-ikuspegia txertatzea Autobabeseko Planetan eta Oinarritzko Araudian, baita dibulgazio-kanpainetan ere.
- Autoeskoletako programetan sartzeari jokabide arriskutsuen prebentzioa, gizonentzat, eta ibilgailuaren ezagutzaren hobekuntza, emakumeentzat.
- Generoaren eta bide-segurtasunaren arloko etengabeko prestakuntza ematea autoeskoletako irakasleei.
- Genero-ikuspegiari eustea hezkuntza-zentroetan egiten diren sentsibilizazio-programa guztietan.
- Prestakuntza berezia sartzeari hainbat arau-hausteren ondoren gidabaimeneko puntuak berreskuratzeko programetan, arau-hausleek, nagusiki mutil eta gizonek, beren gehiegikerien prezioa eta kostua ezagut ditzaten.
- Bide-segurtasunaren arloko sentsibilizazio-kanpaina espezifikoak egitea, adin taldeen eta sexuen arabera.
- Jokabide positiboak ezagutarazi eta saritzea, eta arreta ez jartzea jarrera negatiboetan.
- Ikusita zer-nolako pisua hartzen duten estatistiketan hirietako oinezkoen heriotzek eta lesioek, haien segurtasuna hobetzeko kanpainak egitea. Kanpaina positiboak egiten saiatzea, jokabide eta jardunbide egokiak sustatuz.
- Lehendik eskuratutako informazio berezia erabiltzea kanpaina eta programetan, jomuga estrategikoa hobeto zehazteko.
- Hirietan hazibidean dago bizikleten erabilera, eta horrek bide-antolamenduari loturiko erroka berriak dakartza.
- Genero-ikuspegia txertatzea, zeharkako elementu gisa, Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoaren (2015-2020) 1. estrategiarekin lotura duten ekimen guztietan, Planaren xede diren kolektiboen arabera (unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistema, gizarte- eta hezkuntza-eragileak, familiak, kolektibo kalteberak, oro har). Garrantzitsua da aztertzea zenbaterainoko lotura duen maskulinitasunaren esanahaiak errepideko arrisku-jokabideekin.
- Bereizkeria anizkoitza aintzat hartzea (degaitasuna duten emakumeak, etorkinak, etab.) jarduketara-ildo berriak diseinatzean.
- Garraio publikoaren erabilera sustatzea gazteen artean; bereziki, gizon gazteen artean.
- Genero-azterketa sustatzea bide-segurtasunari buruzko datu estatistikoak biltzean eta azterketak egitean, sexua beste zenbait aldagaiekin batera

aztertuz (integratuta, ez aparte): adina, faktore psikologikoak, sozialak, kulturalak, etab.

- Identifikatutako arrisku taldeei helaraztea (adinekoak, gazteak, motoak, bizikletak eta oinezkoak) genero-ikuspegitik egindako azterketa zehatz horiek.
- Era berean, gizonak gidatzean dituzten jokabide arriskutsuen ondorioei buruzko hausnarketa bat egin behar da politika publikoetatik: istripu kaltegarri eta arriskutsuenak dituzte, gehiago erabiltzen dituzte eskura dauden baliabideak, etab.
- Genero-ikuspegitik aztertzea hiri-eremuetako bizikleten eta moto arinen erabileraren gorakada, kontuan hartuz arauak, ibilbideak, segurtasun-neurriak, gorputzetarako egokitzapena, etab.
- Gizonak eta emakumeek adingabeekin doazela eragindako istripuek zer inpaktu duten identifikatzeko azterketak egitea. Baliteke elementu horrek portaerak aldatzen laguntzea.
- Trafikoko arau-hausteen, puntu-lagapenen eta abarren zaintza espezifiko egitea, ikuspegi erreala goa eskuratu eta analisisa hobetze aldera; izan ere, erabilera desegokia egiten dela ikusi da, gizonetakoak puntuak beren bikotekideei eskualdatzen baitizkiete, eta haiei kentzen dizkiete gero.

EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Institutua:

- Beharrezkoa da berdintasun-unitateak sortzen jarraitzea erakunde autonomo eta publikoetan, horien eskumen-eremuak eragin argia izan badezake berdintasunerako politiketan aurrera egiteko. Era berean, beharrezkoa da formula egokiak bilatzea eta udal-esparruko berdintasun-unitateak sortzea, batez ere biztanleria txikieneko udalerrietan.
- Koordinazioa hobetzeko prozesuak proposatzea, sortutako egiturak geldi daitezela saihesteko eta lidergo-ahalmen handiagoa izan dezatela ahalbidetzeko.
- Sakonago aztertzea berdintasunaren helburua politika publiko guztietan sartzeko aukera, eta bultzada eta indar handiagoa ematea foru- eta udal-esparruei.
- Ikusi da berdintasunaren arloko adituen prestakuntza areagotu eta sakondu behar dela, sektore anitzeko eta zeharkako politikak baitira haien esku-hartzearen xede.
- Euskadiko berdintasun-politiken ebaluazioaren arabera, hobetzeko marjina handia dago, batez ere emakumeen kontrako indarkeria-egoeren prebentzio eta arretarako programa eta baliabideen esparruan.
- Beharrezkoa dirudi, gainera, generoaren eta emakumeen autonomiaren kontzientzia hartzeko prozesuak sakontzea, baina batez ere harago joatea ahalduntze sozial nahiz politikorako prozesuetan.
- Emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko borrokan, premiazkoa da prebentzioa hobetzea, gure gizarteko indarkeria mota berrietan ere arreta jarritz; emakumezko biktimen eta haien kargu dauden egoeraren detekzio goiztiarra egin eta arreta integrala eman behar zaie, bereziki haien seme-alabei, beren amek jasandako indarkeriaren biktima baitira haiek ere.
- Aurrekontuak genero-ikuspegiarekin aztertzeke eginiko lan esperientzial eta esperimentalak kontuan hartuta, beharrezkoa dirudi zenbait datu zabaltzea eta hobetzea; zehazki, programak barne hartzen dituen askotariko esparru eta kolektiboetan sexu-aldagaiaren arabera zer alde eta desberdinkeria dauden xehetasunez aztertzeke aukera emango dutenak.
- Genero-ikuspegidun aurrekontuak egiteke prozesua pixkanakakoa da; hori dela eta, etorkizunean barneko lan-estrategiak beharko dira, hala nola, datuak biltzeke prozesuak eta analisisetan parte hartzen duten pertsona guztientzako prestakuntza-ekintzarako estrategiak.

- Programa bakoitzeko aurrekontu-partidak eta, bereziki, berariazko politika horiek aztertzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikek aurrekontu osoan hartzen duten ehunekoa zenbatesteko eta emakumeei eta gizonei egiten zaien baliabide-esleipena bereiz aztertzeko, aurrekontuek duten eragina neurtze aldera.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua:

- Irakasleei proposatzea, Historia irakasgaiari gai hau lantzen denean, emakumeen memoriak gutxienez gizonenak adinako presentzia izan dezala.

Euskal Estatistika Erakundea - EUSTAT:

- Webguneko atalak edukien arabera berrantolatzea eta erabiltzen den terminologiari buruz hausnartzea.
- Interneten, protagonismoa ematea Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren Atalari, eta eduki esanguratsuenak sare sozialen bidez zabaltzea.
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Atalean jasotako informazioarekin argitalpen espezifiko digital bat egitea, urtero.
- Gauzatutako eragiketen proiektu teknikoak eguneratzen joatea eta pixkanaka sexuen araberako taulak sartzeari.
- Eragiketa berriei buruzko informazioa sartzeari webguneko atalean, hala nola, banandutako senar-emazteen datuak, ongizate pertsonalaren inkesta eta genero-berdintasunaren indizea.
- Sexuaren aldagaia sartzeari lehendik dauden tauletan.
- Datuen analisiak eta monografikoak gehitzea.
- Beste iturri ofizial batzuetatik datozen taulak sartzeko aukera aztertzea.
- EUSTATen Berdintasun Plana eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Atala ezagutaraztea langileen artean.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko prestakuntza-beharrak aztertzea.
- Emakumeen eta gizonen egoerarekin zerikusia duten prentsa-oharrak areagotzea.
- Hitzarmen, kontratu eta prestakuntza-beketako hizkuntza berrikustea.

Haurreskolak Partzuergoa:

- Lanpostuak areagotzea Bilbon eta Donostian, hiri horietako zenbait gunetako eskariari erantzun ahal izateko.

OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea:

- Adierazi behar da OSALANek urtero biltzen dituen txosten eta estatistikak EAEko langile hauetan oinarritzen direla: Gizarte Segurantzara afiliatuta, azterketaren aldian altan, eta kontingentzia profesionaletarako babestuta

daudenak, Gizarte Segurantzaren edozein erregimenetan. Azterketatik kanpo geratzen dira kontingentzia profesionaletarako babesik ez duten autonomoak eta kontraturik gabeko pertsonak.

Horrenbestez, gaur egun estaldurarik gabe dauden edo behar adinako estaldura ez duten kolektiboen egoera aztertzeke mekanismoak taxutzea gomendatzen da; kolektibo horiek dira langile autonomoak, kontraturik gabekoak, egituratu gabeko sektoreetakoak (etxeko sektorea, nekazaritza), etab. Hartara, kolektibo horiek ere izan daitezke programaren esku-hartzearen xede.

- Gomendatzen da, halaber, aurrekontu-partida espezifikoak esleitzea erakundeak berdintasunaren arloan gauzatzen dituen jarduketetarako.
- Proposatzen da sexuaren arabera bereizita biltzea Osalanek diruz laguntzen dituen eta hizarmenkide dituen erakunde eta fundazioei buruzko datuak, eta aurrekontu hori kudeatzeko moduaren segimendua eta kontrola egitea, baita kudeaketa horrek langileen artean eragin positiboa duen aztertzea ere.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia:

Ez dago proposamenik.

7. EAEko Aurrekontu Orokorrak aztertzeko prozesuaren ebaluazioa

Genero-ikuspegidun aurrekontuen analisisia egiteko, beharrezkoa da aurrekontu-programa guztien informazio zehatza eta zabala izatea. Xede-kolektiboa eta genero arteko aldeak ezagutzeko aukera emango duten datu guztiak eskuratu behar dira; ondorioz, neurri zuzentzaileak ezartzeko denbora behar da. Horregatik, hobetzeko prozesu honek konpromiso politiko eta tekniko behar du. Ildo horretan, nabarmentzekoa da sail gehienek P17-Gen formularioa betetzeko konpromisoa agertu dutela.

Esperientzia pilotua izan da, eta, beraz, zailtasunak ere agertu dira. Zehazki, aurrekontu-programen arduradunek berdintasunaren arloko aholkularitza tekniko behar dutela ikusi da, eta aurrekontu-programa bakoitzaren xede diren biztanleak genero-ikuspegiarekin aztertzeko premia hauteman da.

Etorkizunera begira, interesgarria izan daiteke hobekuntza-proposamenekin batera horiek abian jartzeko bideragarritasun-azterketa bat egitea, eta zenbat denbora behar izango den zehaztea.

Kontuan hartuta formularioa esperimentala dela, eta ikusita zein garaitan bete behar izan den, ezin izan da ezagutu zer-nolako pisua duten aurrekontuetan inplizituki edo esplizituki emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzen duten ekintzek. Datu hori lortzeko, P17-Gen formularioan bildutako informazioa xehetzen jarraitzea gomendatzen da; hartara, hurrengo aurrekontuetan aztertzeko moduko informazioa izango dugu.

Sin.: Hernando Lacalle Edeso Aurrekontuen zuzendaria Aurrekontu Zuzendaritza Ogasun eta Ekonomia Saila	Sin.: Zaloe Urbizu Sierra Berdintasunerako Administrazio Unitatea Zerbitzu Zuzendaritza Ogasun eta Ekonomia Saila
--	---

